

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## AIARAKO UDALA

**Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Aiarako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea**

Udal honek, alkatearen 2024ko apirilaren 24eko 231 Dekretuaren bidez, erabaki hau hartu du:

2024ko ekainaren 11tik aurrera idazkaritza kontu-hartzailearen lanpostua bete beharko da, lanpostua hutsik gelditu baita titularra lehiaketa unitarioan beste destino batean izendatu dutelako.

Kontuan hartu dira Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak.

Kontuan hartu dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1 g) artikuluan xedatutakoaren arabera alkateari dagozkion eskumenak.

## EBATZI DUT

Lehenengoa. Prozedura abiaraztea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko izenda dezala estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat Aiarako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan jasotako moduetakoren batean.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartzeko eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehen-tasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Laugarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

## ERANSKINA

Nik, ..... jaunak/andreak (NANa:.....; jakinarazpe-  
netarako helbidea:.....; telefono zenbakia:.....; Estatu-  
rako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa, ..... azpies-  
kalakoa; gaur egun..... lanpostuan, ..... toki  
erakundean, ..... (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren  
jabetze data: ..... / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran -lankidetz  
lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik-).

## ADIERAZTEN DUT

Jakin dudala Aiarako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua aldi baterako hutsik egongo  
dela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo  
zeregin pilaketagatik.

Betetzen ditudala lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren  
baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

## ESKATZEN DUT

Aiarako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu  
eginkizunetan / zeregin pilaketagatik (ezabatu soberan dagoena), betetzeko prozeduran parte  
hartzea.

Honako hauek eranstean ditut:

\*NANaren fotokopia.

\*Estaturako gaikuntza duen funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

\*Lanpostua zeregin pilaketagatik eskatuz gero, zeregin pilaketagatik beste izendapenik  
ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, eta lan egiten duen erakundearen  
adostasuna.

\*Lanpostua zerbitzu eginkizunetan eskatzen bada, lan egiten duen erakundearen baimena.

....., 2024ko .....aren .....(a)

Sinadura .....

## Lanpostuaren ezaugarriak

Izena: idazkari-kontuhartzailea.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzaileta.

Taldea: A-1.

Destino-osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 25.221,36.

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2024ko apirilaren 24a

*Alkate-lehendakaria*

*PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA*